


SAGARDOAREN TRAZABILITATEA

Gipuzkoako Foru Ogasunak Silicie sistema ezarri du, zerga berezien xede diren produktuen kontabilitatea eramateko.

Gipuzkoako Foru Ogasunak zerga berezien xede diren produktuen kontabilitatea eramateko sistema berri bat ezarri du: *Silicie* izeneko. Araban, Bizkaian eta Nafarroan, duela urtebete sartuz in-darrean; Gipuzkoan, berriz, 2020an borondatez gauzatzeko aukera izan dena bete behar bilakatu da 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera. Horrek urtean 100.000 litro edari alkoholdun ekoizten dituztenei eragingo die.

Araudia, oro har, bere horretan mantendu da, baina jakinarazteko moduan eta epeetan dago alde. Batetik, aurrerantzean, idazpenak elektronikoki hornituko dira, zehaztutako formatuetan eta epigrafeetan, zuzenean egoitza elektronikoa jasota edo norberaren sistema informatikoa baliatuta egindakoa igota. Bestetik, orain arte, hiru hilean behin aurkeztu behar zituzten liburak; orain, berriz, mugimendu bat gertatzen denetik 24 orduko epean ezagutarazi beharko dute. Horrek, zerga berezien xede diren produktuei ez ezik, haiek lortzeko lehengaien kontabilitateari ere eragiten dio.

Idazpenei dagokienaz, ia denak bere horretan mantenduko dira, ekoizpenari dagozkienak izan ezik. Izakinak, mugimenduak eta prozesuak adierazi behar dira, botilaratzean, ekoizpenean eta zirkulazioan sortutako aldeak adierazita. Lehengaien kasuan, sagar kiloak edo muztio litroak jakinarazi beharko dituzte, eta baita



Sagardoa egiteko sagarrak eta upelak. SAGARDOAREN LURRALDEA - JOSE LOPEZ JAUREGI

mugitutako kopuruak edota sagardoaren eraldaketa prozesuan egindako urratsak ere. Esaterako, sagarrekin lortutako litro kopuruak, nahastutako muztio kopuruak eta haien jatorria...

Gipuzkoako Ogasunak sagardogileei eta txakolingileei zuzendutako eskuliburu bat prestatu du, bere webgunean eskuragarri dagoena. Bertan, pausoz pauso osatu beharreko atalak agertzen dira, baita zenbait azalpen ere eduki horiek adierazteko moduari buruz. Halaber, bestelako dokumentu batzuk ere badira plata-forma erabiltzeko azalpenekin eta eduki fiskalari buruzko zehaztapenekin. Bide berean, Hazi fundazioaren bidez, sagardo, txakolin eta garagardo enpresen jabeek eta kudeatzaileek bideratutako formakuntza saioak egin dituzte azken asteetan.

KONTROL HANDIAGOA

Kontabilitatea horrela aurrera eramateak kontrol handiagoa izatera behartuko ditu ekoizleak, aldaketa bakoitza jaso beharko baitute. Lan karga handituko baduere, hobeto ezagutuko dute enpresaren egoera, eta, hein batean, modu profesionalagoan kudeatzeko bidea ere bada.

Orain arte, hiru hilean behin aurkeztu behar ziren alkohol liburuak, baina 2021. urtetik aurrera aldatzea jasotzen den bakoitzean adierazi beharko zaio Ogasunari.

@ Informazio gehiago bildu nahi izanez gero, bisitatu webgune hau: www.gipuzkoa.eus



ISASTEGI

~ SAGARDOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA~
TOLOSA (GIPUZKOA)
TEL: 943 65 29 64
ISASTEGI@ISASTEGI.COM



DASTATU
UZTA BERRIA
OSTIRALA, LARUNBATA
ETA IGANDEA
EGUERTITAN
TOLOSATIK AUTOBUSA